

SOLUZIOAK APIRILA

Hona hemen apirilean Euskal Herriko herri desberdinetako umek beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

Labirintoa

Lagundu erleari erlauntzara onik iristen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartea dira.

sekuentzia

Idatzi hemen esaldia.

ERLEAK EZTIA ETA EZTENA

Sudokua

B	O	i	R	E	L
R	L	E	i	O	B
L	B	R	E	i	O
E	i	O	L	B	R
O	E	L	B	R	i
i	R	B	O	L	E

Ondoko BI LOREek sudoku baterako aitzakia eman digute. Osa itzazu lauki zuriak bi hitz horiek osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (B, I, L, O, R eta E). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Marraztu

Sei dado hauetatik lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

Bota dadoa!

Uil Erlea ihesi doal Zer ote da beldurtu duena? Txori baten moko zabala? Tximista? Armiarma? Spray pozoitsua? Marraztu ezazu.

